

KOLABORAZIOAK

Unai Vazquez [Barakaldoko [Askapena](#)]

Duela 60 urte, Israelgo Estatuak ezarri zuten. Egun horri, 1948ko maiatzaren 15ari, Nakba (Hondamendia) deitzen diote palestinarrek. Egun horretan 800.000 palestinar euren etxe eta lurak utzi behar izan zituzten sionistak bultzaturiko garbiketa etnikotik ihesean.



Gaur, lau miloi palestinar baino gehiago bizi da oraindik erbestean errefuxiatu-eremuetan. 60 urte eta gero, palestinarren eskubide nazionalak urratuak jarraitzen dute: Gaza isolatua dago blokeo kriminal bat dela eta, checkpoint edo kontrolak edonon daude palestinarren bidaiatzeko eskubidea oztopatuz, Zisjordaniako lurak lapurtzen dituen Apartheid harresia bertako hiritarrak kartzela erraldoi batean bizitzera zigortu ditu, 11.000 preso politiko daude espetxe sionistetan, Apartheid harresia, Palestinako lurralde historikoaren %80 a lapurtua...Bazterkeria nagusi duen ideologia sionistan oinarritzen da Israelgo Estatuak. Judutarrentzat soilik eratu den Estatu sionista da Israel. Beste guztiek ez dute eskubiderik, ez dira herritarrak. Apartheid garaiko Hegoafrika gisako jendartea da egun Israel. Apartheida suntsitzeko boikota tresna eraginkorra izan zen eta berdin izango da palestinar herriaren genozidioa eteteko.

Ilido horri jarraituz, Palestinako 170 jendarte taldek Israeli boikota egiteko deia egin diote nazioarteko taldeei. Palestinarren eskubideak bermatzen ez diren bitartean, Israeli boikota egitea eskatzen dute elkartasun adierazi nahi duen orori. Erabateko boikotera deitzen dute. Arlo guztietan, ekonomikoa, kirolean, kulturean, ...

Euskal Herrian, maiatzaren 15ean, internazionalistok, gure herriaren alde borrokatzen dugunok, apartheidaren sufritzen ditugunok, kontrolak egunero jasan behar ditugunok, lagunak gartzetan ditugunok, askatasuna maitatzen ditugunok... ez dugu ezer ospatzerik, beraz gure herriaren defentsan arituko gara, Palestinaren alde, Israelen kontrako boikota piztuz elkartasuna lantzeko, askatasunaren haziak landatzeko, laster haritzak eta olibondoak elkar loratzeko.